

{ datorrena } Iñaki Soto

# Harresiak gaindituko dituen gogoeta behar dugu

Afganistango egoerari beste enfoke bat bi-latu nahian, AFPko Ozan Kose argazkila-riaren erreportaje miresgarri batekin egin genuen topo aurrekoan. Talibanak Kabulen sartzen ari zirenean, afganis-tandar migranteen talde batekin batera Iranen eta Turkiaren arteko muga gurutzatu zuen Ko-sek, Kurdistanen erdian. Bidaiaren azken txanpa mi-granteekin eta kontrabandistekin batera egin zuen eta ibilaldiaren une desberdinak harrapatu zituen. Hara heltzerako, 80 egunez ibili behar izan dira. Mu-gara gerturatu ahala, kontrolak ugaltzen doaz. Muga-lariek esandako etxoletan ez bada, leizetan egiten du-te lo. Irudiak gogorak eta aldi berean oso onak ziren.

Egunkariaren azalera ar-gazki horietako bat eraman genuen, eta barruan hiruz-palau irudi sartu genituen. Erredakzioan gustuko ditu-gun erretratuez gain, pai-saia batekin harritu ginen: irudietako batean muga horretan eraiki duten mu-rrua agertzen da.

Guztira, 243 kilometroko harresia izango da, 3 metro altuerakoa, lubanarroz eta dorretxoak josita egongo da.

Hemendik eta urte amaierara turkiar agintariak 64 ki-lometro gehiago eraiki nahi dituzte. Bertan dimentsio horietako harresirik zegoenik ez genekien. Pentsatzen hasita, ordea, egia da azkenaldian murrutik eta hesi berriei buruzko albisteak argitaratu ditugula.

## USTE BAINO HARRESI GEHIAGO, USTE BAINO GERTUAGO

Hortik tiraka, migranteen aurkako sistemen errepa-soa egin genuen. Urrutira joan gabe, aurreko astean greziar Gobernuak Evros ibaiaren inguruan 40 kilo-metroko hesi metalikoa amaitu duela esan zuen. Kasu honetan, ez da hesia soilik. Kamerak, radarrak eta soi-nu-kanoiak ditu, «migranteen jauzi masiboak ekidite-ko». Ekainean honen berri eman genuen.

Hortik gutxira, uztailen, Europaren beste puntan murrutik berri baten berri ematen genuen: Lituaniak eraikiko duen 500 kilometroko harresia, hain zuzen ere. Bielorrusiako gatazkaren ondorioz bide hori in-dartu da, eta Baltikoko herrialdeak Europar Batasuna-ren babesa izan du murrutik altxatzeko. Oraingoz, per-tsonen fluxua zailtzeko, hesi metalikoa eta txarrantxa bota dute. Aurreko astean Poloniak Bielorrusiarekin duen mugan harresia eraikiko duela agindu du.

Zerrenda honetan ezin ditugu ahaztu Ceuta eta Me-lillako hesiak, Europaren beste izkinan. Maiatzean az-ken krisia bizi izan zutenak, Marokoren bultzadaz. Orain gertakari haren ajea ari da bizitzen espainiar Es-tatuan, Fernando Grande Marlaskaren Barne Ministe-

Afganistango gertakarien harira, azkenaldian migranteen aurkako murrutik etengabe eraikitzen ari direla ikusi dugu, oharkabean, uste baino harresi gehiago eta uste baino gertuago

rioak hesia gainditu zuten umeekin eta nerabeekin izan duen jokabide bidegabeagatik.

Joera orokorra da eta ez dugu behar bezain serio hartu. Trumpen edo Israelen murrutik ari ginen bitar-tean –eta aritu behar zen, behar da–, etxeko patioan hormigoi-makina gelditu gabe bueltaka ari zen. Bida-soan hildako migranteen kasuek euskal jendartearen parte baten kontzientzia ukitu dute, urrutitik ikusten zen errealitate hori gure lurraldean itotzen ikusi du-gulako. Migrazioaren auziari ez diogu dimentsioa har-tzen. Egia da larrialdiak erantzuna behar duela, ito-tzen ari denari bost axola diolako zure gogoetak edo gogoeta faltak. Baina heldu beharko diogu, gurean mugaz gain murrutik ez badugu nahi. •